

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Asteartea, 2011ko maiatzaren 31. VIII. urtea. 2.235. zenbakia. www.tolosalde.hitza.info



Mikel Olaetxea lizartzarra, bigarren mailako finalean

Ekainaren 11n izango da pilota txapelketako finala Merino Laren aurka; Oinatz Bengoetxea leitzarrak, bere aldetik, ezin izan du lehen mailako finalerako txartela lortu **o7**

→ «Gustura» Garai Bateko Alegiak emandakoarekin.

Herenegun alegiarrek atzera egin zuten; herritarrek garai bateko jantziak atera zituzten, eta orain urte askotako herria irudikatu zuten. Kalegora, Kalebehera eta Larraitx auzoen arteko apustuak ere jende asko erakarri zuen. **o3**

Bi ekitaldi besterik ez dira falta Kultur Aroa bukatzeko

Herenegun Artisautza Azoka izan zen plazan, eta larunbatean Gazteen Eguna ere izan zuten; azken ekitaldiak sagardoarekin dute zerikusia **o4**



Plazan izan zen Artisautza Azoka. S. GOMEZ

650 lagunentzako 325 bisigu, ekainaren 11 eta 12ko Tolosako Bisiguaren Festan

Asteburu berean Galiziako produktuak dastatu ahal izango dira Trianguloa plazan, Alardea egingo dute 12:00etatik aurrera, eta Lore eta Landare Azoka ere egingo dute goizean zehar **o2**

Aska ezazu irudimena zure DISEINATU

ceinpro
TITULAZIO
OFIZIALAK

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN

Heriz Pasealekua 95 • 20006 Donostia • Gipuzkoa • **943 310 873** • www.ceinpro.es



**TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA**



Kondeko aldapa 5B Tolosa • 943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila		Erdi Maila
- Gizarte Integrazioa - Haur Hezkuntza - Osasun Dokumentazioa - Diagnosi Irudia	AURREMATRIKULAK EKAINAK 1 - 10	- Erizaintza laguntzailea - Farmazia eta parafarmazia teknikaria - Sarbide proba
KALITATEZKO FORMAZIOA		



650 lagun ingururentzako arraina prestatuko dute parrillan ariko diren 3 oriotarrek. HITZA

Parrillan erretako 325 bisigu zerbitzatuko dituzte Tolosako Bisiguaren Festan

Ekainaren 11 eta 12an Galiziako produktuak, Tolosako Alardea, eta Lore eta Landare Azoka ere izango dira

Maier Ugartemendia Tolosa

Bisiguaren Festa ospatuko dute Tolosan, ekainaren 11n eta 12an. Txinparta elkarteak, «aurreko bi edizioetan lortutako arrakasta» ikusita, hirugarrenez jaialdia antolatu du Tolosako eta Orioko udalekin elkarlanean. Orioko hiru sukaldarik, 325 bisigu inguru erreko dituzte, 650 lagun ingururentzat.

Jaialdiaren antolakuntzaz arduratu den Txinparta elkarteak lehendakari den Jose Mari Etxeberriaren hitzetan «jendeari hain preziatua den produktua gerturatu nahi diogu, era egokian sukaldatutako, parrillan aritzen diren onenen eskutik eta era tradizionalean, zuzenean parrillan jarrita». Etxeberriaren arabera, «bisigu freskoa eta goi mailako kalitatekoa» dastatu ahal izango da Tolosan. Gainera, «arraina nola prestatzen duten ikusi eta produktuaren kalitatea egiaztatzeko aukera izango du edonork».

Galiziako produktuak

Galiziako gastronomiari ere leku berezi bat eskainiko diote festa

honetan; eta ostiraletik igandera bitarte, Trisquale Galiziako etxeko kideek karpa handi bat ezarriko dute, Trianguloa plazan, beren lurraldeko produktu tipikoenak erakusteko eta probatzera emateko: olagarroak, muskuilu eta datil freskoak, albariño eta ribeiro ardoak, eta postre gozoak egongo dira, besteak beste.

Horrez gain, Queimada dastatzeko aukera ere izango da larunbat gauean, eta baita gaitaren soinuarekin eta dantza folklorikoarekin gozatzeko ere.

Tolosako Alardea

Aipatu ekitaldiez gain, beste kultur ekitaldi batzuk ere antolatuko dira. Ekainaren 12an, adibidez, Tolosako Alardea ospatuko da, 1813an frantsesen inbasioari aurre egiteko hiribilduan egin zen oroigarri gisa. 12:00etan tropen desfilea irteno da, eta ekitaldia Nafarroako zubian eta zerkasian burutuko dira. Bestalde, Tolosa Berdez ekimenak bultzatuta Loreen eta Landareen erakusketak antolatu dute. Hori dela eta, salmenta postuak egongo dira igandean Gaztelako arkuan, Plaza zaharrean, Santa Marian, Euskal Herrian eta Berdura enparantzan. Larunbat arratsaldean, Topik eta Leidor antzokietan antzerki saioak egingo dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Pepinoak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Animalien gorotzaz elikatutako pepinoek, sabeleko gaixotasunak sortu omen dituzte Alemania aldean. Sabeleko gaixotasun honen sortzailea, egoera naturalean geure hesteetan dugun bakterio polit batek eragin du. *E. Coli* izena du, eta bitaminak sortzen ditu gure gorputzean. Noski, bakterio hau kopuru egokian badugu ez digu kalterik eragiten, baina gure hesteetan gehiegi ugaltzen bada... hor datoz komeriak!

Pepinoak, landare oro bezala, animalien gorotzarekin elikatzen ditugu, gorotz honetan animalientzat baliogarriak ez diren, baina landareentzat elikagai iturri bikainak diren nitrogenoa, fosforoa eta abar daude. Gorotza animalien hesteetan sortzen da, heste hauetan animalien bakterioak daude, eta sarritan gorotzekin batera kanporatzen dira bakterio hauen ale batzuk.

Normalean, nahiz eta pepino eta landareen gainazalean bakterio hauek egon eta guk gaizki garbitutako pepino bat jan, gure urdailetik igarotzean hil egiten dira. Zenbaitetan, zorte handiz, urdaila bizirik igaro eta gure hesteetan kokatzen dira, baina esan dugunez, modu naturalean ere baditugu eta beren kopurua neurritz kanpo igarotzen ez badute, gurekin gustura biziko dira.

Baina bakterio xarmagarri hauek izaera nahiko aldakorra izaten dute eta zenbaitetan bakterio hauen barne egitura aldatu egiten da, eta bitamina onuragarriak sortzeari utzi eta toxikoak sor ditzakete gure hesteetan, kalte larriak eraginez gure gorputzean.

Urtero bakterio hauetako batzuk arazoak sortzen dituzte gure gizartean, eta urte batean txerto bat sortzen dugun arren, hauen izaera aldakorragatik, hurrengo urterako barne egitura aldatzen dute eta beste txerto bat egin behar da aurre egiteko. Gizakia eta bakterioen arteko borroka da!

Beraz, zuen pepinoak ongi garbitu eta *bioaniztasunetik.blogspot.com* bloga eta Facebook bisitatu.

Pertsonalki zerbaite esan nahi badidazue *bioaniztasunetik@hotmail.com* helbidera idatz diezadakezue.

→ Laburrak

Nekazaritza ekologikoari buruzko hitzaldia, eskolan

BERASTEGI » Berastegiko Guraso Elkarteak energia berriztagarrien inguruko hainbat hitzaldi antolatu ditu. Gai hauen inguruko azken hitzaldia bihar izango da. Inazio Urangak *Nekazaritza ekologikoa* hitzaldia emango du, 19:00etan, Eskolako ganbaran. Aurreko hitzaldietan bezala, haurrak zaintzeko begirale bat egongo da hitzaldiaren garaian.

Minbiziaren Aurkako Elkartearen eskerrak

IBARRA » Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie Ibarako herriari eta elkarteko boluntarioei, maiatzaren 21ean egin zen diru bilketan parte hartzeagatik. Lagundu zuten pertsona guztiei esker 1.007,50 euro biltzea lortu zuten, eta diru hau «minbizi duten pertsona eta familiakoei zuzenduriko arreta, prebentzioa arloko esku-hartze eta ikerkuntzarako» erabiliko dela adierazi dute.

Sahararentzat janari bilketa egiten ari dira

VILLABONA » Tolosaldea Sahararekin elkarrekin errefuxiatuen kanpamentuetarako janari bilketa antolatu du aurten ere, eta Villabonako eta eskualdeko ikastoletan eta eskoletan jada martxan jarri da. Janari bilketan parte hartu nahi duenak Villabonako Eroskin eta BMn jarrita dauden janaria uzteko karroetan utz dezake janaria. Bilketarako epea ekainaren 10ean amaituko da. Aurten, bildutako janaria eramango duen karabana Tolosatik aterako da ekainaren 18an.

Erretzeari uzteko hitzaldia, bihar, Irrintzi Elkartearen

VILLABONA » Irrintzi Elkarteak antolatzen dituen ekitaldien artean, aste honetan, erretzeari utzi ahal izateko hitzaldia eskainiko du. Hizlaria Maider Sierra izango da, eta bertan erretzeari utzi nahi dion edozeinek parte hartu ahal izango du. Hitzaldia bihar izango da 19:00etan Irrintzi Elkartearen; eta sarrera dohai-rik izango da. Elkarteak, gaiarekiko interesa duen oro, parte hartzera gonbidatu du.

Herria festa bihurtu da Garai Bateko Alegian

Maidar Jauregi kultur zinegotzia, gustura dago festarekin: «Dena ondo atera zen eta jendeak erantzun du»

Imanol Garcia Alegia

«Oso egun polita izan zen», esan du Maidar Jauregi kultur zinegotziak Garai Bateko Alegia festari buruz. Eguraldi iragarpena bete egin zen, eta eguzkiak ederki jo zuen egunean zehar. «Dena ondo atera zen», gaineratu du Jauregik. «Jendeak erantzun du eta parte-hartzea oso zabala izan da»

Egunotan antolatzaileak bilduko dira balantzea egiteko, baina igande arratsaldean, festa amaitzen ari zela, gustura zeuden egunak emandakoarekin. «Orain aztertu beharko dugu hutsunerik egon den, izan diren beritasunak nola joan diren...», azaldu du Jauregik.

Lehenengo festaren arrakastaren ondoren, bigarrenengo aldiari giroari eta parte-hartzeari eutsi-



Auzoen arteko kirol apustuko parte-hartzaileak eta bazkal osteko erromeriarren une bat. PATXI RENOBALES

ko ote zitzaion zen erronka. «Lortu dugu», dio Jauregik. «Esaterako, kirol apustuak ikusmina eta sekulako saltsa sortu zuen». Berritasunek ere erakarri zuten jendea: «Eskola zaharra eta ile apaindegia nola zeuden jarrita ikustera jende asko joan zen. Baita eskulan eta ofizioak zeuden txokoetara». Apustuan hiru auzo aritu ziren elkarren lehian: Kalegora, Kalebehera eta Larraitz auzoa, alegiarrek *Barrio* deitzen diote-

na. Azken sailkapenean Kalegora irabazi zuen, baina benetan irabazlea apustuak sortutako giroa izan zen.

Apustuaren ondorengo soka dantza une «hunkigarria» izan zen. Garai batean dantzan aritu zirenak egin zuten saioa. Herri bazkariak eta ondorengo erromeriak bukaera ederra eman zioten. «Bazkaria mundiala zegoela esaten zuen jendeak», dio kultur zinegotziak. «Eta erromerian hel-



du, gazte eta haurrak aritu ziren». Antolakuntzaren aldetik eskerak luzatu dizkiete parte hartu zuten guztiei, festa «posible egin zuten lagun guztiei», dio Jauregik. «Ofiziotan aritu ziren jostun, nekazari, etxeko andre eta esnezale, gaztagile, eztagile eta arotzari; aizkolariei, zozketa eta goxoki saltzaileei, dantzari, esatariari... Momentu benetan bereziak eskaini zizkiguten ile apaintzaile eta bizarginari, balkoitik balkoira

jardun zuten bertsolariei... Koruko eta gaztetxeko tabernariei, dantza taldeko talogileei, DBHko ikasleei... Denei». Sukaldariak eta musikari zein abeslariak ere gogoan ditu eskerrak ematerakoan: «300 laguneko bazkari aparta eskaini ziguten sukaldariek, eta egun guztian zehar eta bereziki arratsalde partean beren kantu eta musikarekin herri guztia dantzan jartzea lortu zuten kantari eta musikariek».

→ Laburrak

Jose Luis Korta, Kultur Asteari amaiera emateko

ALBIZTUR > Kultur Asteari amaiera emateko, bihar, Jose Luis Korta arraun entrenatzaile oriotarra izango da Albizturren. Saioa 19:30ean hasiko da eta berarekin hitz aspertu bat egiteko aukera izango da, tartean arraunari eta telebista munduari buruz.

Sei urteko espetxe zigorra, hilketa saiakeragatik

ALEGIA > Gipuzkoako Auzitegiak sei urteko espetxe zigorra ezarri dio gizonetako bati, emakume bat hiltzen saiatzeagatik labankada batez. Gertaera 2008an izan zen, Alegian, gizonetakoaren etxebizitzan. Zigortuak 45.100 euro ordaindu behar dizkio emakumeari.

Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldearen bilera

TOLOSA > Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak bilera irekia egingo du, gaur, Corpus Christi parrokiko lokaletan, 20:00etan. Alkoholaren eta bere kalteen eta osatzearen inguruan hitz egiteko. Bilerara alkoholak kalteturikoak eta euren senideak gonbidatzen dituzte, baita argibide gehiago izan nahi dutenak ere.

Igeldoko abesbatzak Afrikako doinuekin bete du eliza

Lezkarri koruak egitarau erakargarria eman zuen; Txintxarri abesbatzak ere abestu zuen emanaldian

Nerea Pikabea Alegia

Igeldoko Lezkarri abesbatzak egitarau anitza eta erakargarria eskaini zuen joan zen larunbatean Alegiako Joan Bataiatzailea Deunaren elizan. Afrikako kultura desberdinetako doinuek ukitu

exotikoa eman zioten emanaldia. Herriko Txintxarri abesbatzak egin zuten ongi-etorria igeldorrei. 50. Urteurrenko ekitaldien ondoren, jendaurrean kantatzen zuen lehen aldia zen, eta oraindik kantuan aritzeko gogoia badutela erakutsi zuten alegiarrek. Txintxarriek estrainezko kantatu zuten Javi Busto hondarribiarraren *Sagastipean* obra konplexua, disonantziak bete.

Baina larunbateko protagonistak Lezkarri abesbatzakoak izan ziren. Duela zortzi urte sortutako abesbatza da Igeldokoa, talde gaz-



Lezkarri abesbatza Alegiako elizan emandako kontzertuan. HITZA

tea, eta nabaritu zen hasiberriak direla oraindik, baina egitarau erakargarria eskaini zuen elizan hoguei abeslariz osatutako taldeak. Kote de la Granjaren zuzendaritzapean. Euskal kantu ezagunekin ekin zioten emanaldiari, eta Hego Amerikako doinu ezagunak kantatu zituzten gero. Ondoren hasi zuten *Igeldotik Afrikara* izeneko tarte. Afrikako kultura desberdinetako doinu herrikoiak

abestu zituzten, Gurutze eta Jaione Dorronsoro herritarrek perkusioarekin lagunduta.

Alegiarrek zintzarri bat opartu zieten Igeldokoei, eta ondoren, Benito Lertxundiren *Herribehera* kantatu zuten bi koruek elkarrekin. Segidan, mokadutxo bat hartu zuten bi koruek herriko Intxurre elkartean. Udazken aldera Igeldon kontzertua eskaintzekotan dira Txintxarrikoak.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Apartamentua.** Jakan apartamentua salgai. Altzariz guztiz hornitua. Erdigunean, parkegune handi baten ondoan. Garaieja eta trastelekua ditu. Prezio interesgarria. 667 49 25 57.

AURKITUAKOAK

■ **Bizikleta.** Pasa den maiatzaren 21ean, larunbata, 12 urteko umeentzako moduko mountain-bike bizikleta agertu zen.

Galdu duenak, deitu dezala 635 70 69 53 zenbakira.

ESKAINZA

■ **Ingelesko ikastaroak.** Ingelesko ikastaroak, uda partean: ekaina, uztaila eta abuztua. Talde bereziak. Elkarriketak, atzerriko bidaietarako eta lanerako gaitasunak. Maila ezberdinak, taldeka edo banaka. Umeak eta helduak. Irakasle tituluduna. 664 16 02 68.

Berriaren edizio digitalerako DISEINATZAILE-PROGRAMATZAILE bat behar da.

Ezaugarri hauek bete behar ditu:

Erreferentzia: 2011EH-DP

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lengoaiak eskarmentua izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- 12 hilabeteko kontratua (luza daiteke).
- Lanean berehala hasia (ekainean).

Bidali curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, ekainaren 1a baino lehen.

↓ Kirol emaitzak

PILOTA

ESKUZ BANAKAKO
TXAPELKETA

Lehen Maila, finalerdiak
Olnatz Bengoetxea 15
Aimar Olaizola 22

Bigarren Maila, finalerdiak
Mikel Olaetxea 22
Peñagarikano 12

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO

MAILA

34. jardunaldia
Roteta 2
Tolosa CF 3

Sailkapena

1. Hernani (78 puntu)
2. Real Union (77 puntu)
3. Pasajes (66 puntu)
7. Tolosa CF (53 puntu)

AIZKORA

URREZKO AIZKOLARIEN
BANAKAKO TXAPELKETA
Finalerdiak, Leitzan

(Lehen kanporaketa)
Lopez Azpilikueta 18:58"
Iñaki Azurmendi 19:33"

(Bigarren kanporaketa)
Jon Rekondo 24:10"
Aitzol Atutxa II.a 20:54"

TXIRRINDULARITZA

ITALIAKO GIROA 2011

Azken etapa, erlojupekoa

- 1- David Millar 30:13"
- 2- Alex Rasmussen +00:07"
- 3- Alberto Contador +00:36"
- 11-4- Mikel Nieve +03:47"

Sailkapen orokorra

- 1- Alberto Contador 84:05:14
- 2- Michele Scarponi +06:10"
- 3- Vincenzo Nibali +06:56"
- 11- Mikel Nieve +16:08"

Laskorainek Nazional A maila gero eta gertuago dauka

Joaneko partida
Autsainen jokatu
zuten asteburuan
tolosarre; hirunako
berdinketa lortu zuten

Gorka Amatriain Tolosa

Modu guztietako gorabeherak izan zituen norgehiagoka batean, eta irakurketa positibo zein negatiboak egin dakizkiokkeen emaitza bat eskuratu ostean, atal subjektiboa alde batera utzirik jakina den gauza bakarra zera da, itzulerako partidari erabakiko dela Gazte Berriak eta Laskorainen artean datorren urtean Nazional A mailan jokatzeko postu bat irabaziko duenaren izena.

Antsoaingo Gazte berriak taldeak, Nafarroako ligako txapel-duna zergatik izan den erakusteko aukera izan zuen bere etxean. Minutu luzeetan zehar maldan gora ipinitako emaitza baten aurka aritu behar izan zuen, baina neurketako azken minutuetan bete-betean sartu zen kanporaketan, bere aukera guztiak osorik mantentzen dituelarik datorren aste bukaeran erabakitzear dagoen demarako.

Lehen zatian nagusi

Neurketa primeran hasi zen tolosarrentzat, hasierako minutuetan erakutsitako nagusitasunak

0-1eko merezitako saria izan baitzuen Gilek marra gainean bultzatuko baloi bati esker. Laskorainen taktika erabat gardena zen, defentsa sendoa oinarritu, eta kontraerasoan ziztadak ematea, alegia. Nafarrek dena den, kalitate handiko jokalaririk anitzetan abantaila du bere lerroetan, eta behin eta berriz ekin zioten Endikaren atea gogaitzearen ahaleginari.

Bigarren zatian, gorabeherak

Bigarren zatia hasieran gidoiak berdin jarraitu zuen, eta Javiren mutilak izan ziren berriro egoerari etekina atera ziotenak, eta bi kontraerasotan Joniko eta Gilek beste behin 0-3ko ia erabakigarria ipini zuten elektronikoan. Ordurarte Endika atezainak era guztietako geldituak egin zituen, eta elektronikoaren emaitza, ederra izanagatik apur bat tranpatia agertzen zela onartzea bidezkoa da, etxekoek sortutako gol aukera argiak ukaezinak baitziren.

Gauzak horrela, nafarrek arriskua egiteko intentzioa beteetan jarraitu zuten, bi golekin berpiztu zuten bere gorpu zendua, eta neurketa amaitzeko segundoko gutxi geratzen zirenean jokaldi trabatu batetik txirrinaren mugan berdinketako sareratzeko garrantzitsua egin zuten zoramenaren erdian.

3-3ko berdinketak kanporaketa airean uzten du eta horitxoan



Joaneko partida Ansoainen jokatu zuen Laskorainek asteburuan. HITZA

amaierako aurpegi goibelak uler-garriak diren arren, etxean eta zaleku guztien aurrean jokatu den bueltako neurketari itxaropenez beterik ekingo diote tolosarrek, bere historiako partidurik garrantzitsuenaren testigu izango den zitan.

Domeka goizean Ansoainen jokatu joaneko partidari, harmailak kolore horiz bete zituzten Tolosako zaleku ugarietako gain, Javi delegatua, Javi entrenatzailea, Endika, Murgi, Gil, Telleria, Bellosa, Ilunbe, Joniko, Ekhi, Balerdi eta Aratz izan ziren.

 Hilberriak



ESKERTZA

**JUANITA ELORZA
ARTETXE**

- Goian bego -

Gure tia Juanitaren koinatak, ilobek eta sendikoek bihotzez eskertu nahi ditugu jaso ditugun samin agurrak eta baita hileta elizkizunean gurekin lagun izan zaituztegunak ere.

SEGURA, 2011ko maiatzaren 31

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**HILETAREN
BALIOA**

Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horietan lider gareniz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erabazteko izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Mikel Olaetxeak bigarren mailako txapelketaren finala jokatuko du

Herriartekoan Bidegoianek 1-2 galdu du Hernaniren aurka; itzulerakoa ekainaren 4ean izango da

Asier Imaz

Mikel Olaetxea lizartarrak bigarren mailako banakako txapelketaren finala jokatuko du ekainaren 11n, Merino I.aren aurka. Oinatz Bengoetxea leizarrak, lehen mailan, ez zuen finalerako txartelik lortu, Aimar Olaizolaren aurka 22-15 galdu ostean. Orain, hirugarren edo laugarren postua izango du jokoan, Idóateren aurka ekainaren 4ean jokatuko duen partidaren.

Olaetxeak Peñagarikano irabazi zion finalerdietan, 22-12ko emaitzarekin. Partida Tolosan jokatuko zen eta gogorra izan zen, ia 52 minutu iraun baitzituen. Lizartzako pilotariak, nahiz eta aurrelaria izan, tanto asko egin zituen atzean, Peñagarikano behartuz

eta alde batetik bestera mugiaraziz.

Azpeitiko atzelariak ez zuen pilotaz behar bezala gozatu, eta Olaetxearen pilotakadei aurre egiten ezinean aritu zen.

Oinatz Bengoetxearen kasuan, ez zen horrelakorik gertatu, nahiz eta finala ez zuen oso urruti izan leizarrak. Hasieratik Olaizola II.a baino biziago mugitu zuen pilota, defentsan ere bikain aritu zen, eta fisikoki arerioa baino gehiago dela erakutsi zuen. Markagailuan ordea, 15ean gelditu zen. Bengoetxea VI.ak ez zuen tantoa amaitzen asmatu, eta hor ez zuen barkatu Aimar Olaizolak. Aurkariaren hutsak tanto bilakatu zituen goizuetarrak. Hotz eta zehatz jokatuz, Xalaren aurkako finalean egoteko txartela lortu zuen Olaizola II.ak.

Esku pilotarekin jarraituz, as-teburuan Gipuzkoako Herriarteko Txapelketaren final laurdenak jokatuko dira. Bidegoianek eta Hernanik joaneko partida jokatuko zuten larunbatean, Bidaniko pilotalekuan. Kadeteetan etxekoak na-

gusitu ziren, 22-16ko emaitzarekin. Jubeniletan eta nagusietan ordea, Hernanik irabazi zuen, 17-22 eta 6-22. Itzulerako partida Hernanin jokatuko da ekainaren 4ean.

Nagore Arozena eta Maider Mendizabal

Emakumeen paleta argentinarreko txapelketa, Kutxa Sari Nagusia 2011, martxan da. Lehiarako, antolaketa batzordeak 12 pilotari hautatu ditu, 6 bikote osatuaz. Bikote hauek bi multzotan banatu dituzte, hiruna bakoitzean. Multzo bakoitzean joaneko ligaxka bat jokatuko dute, denek denen aurka. Ligaxkaren amaieran lehenengo eta bigarren postuetan sailkatutako bikoteek, elkarren artean gurutzatuta, finalerdia jokatuko dituzte norgehiagoka batera. Finalerdietako irabazleek finala jokatuko dute eta, galtzaileek, berriz, 3. eta 4. postua.

Lehian, Anoetako Maider Mendizabal eta Lizartzako Nagore Arozena aurkitzen dira.



Jon Rekondo etxean aritu zen lehian, igandean. SARA GOMEZ

Finalerako txartela etxean galdu du Jon Rekondok

Urrezko Aizkolarien txapelketan, hirugarren eta laugarren posturako lehia jokatuko du leizarrak igandean

Asier Imaz Leizta

Aitzol Atutxak Urrezko Aizkolarien finaletik kanpo utzi zuen Jon Rekondo igandean. Leizarra etxekoan aurrean aritu zen aizko-

ran, baina Atutxa II.ak hiru minututik gorako aldea ateratzen. Rekondok ez zuen bere maila eman, ezezagun aritu baitzen aizkoran. Bi aste barru Azpeitian jokatuko den finalean egoteko aukerarik ez baldin badu ere, hirugarren eta laugarren posturako lehian ariko da leizarra. norgehiagoka ekainaren 5ean, igandean, izango da Nafarroako Zierdia herrian, 12:00etatik aurrera. Leizarraren aurkaria Iñaki Azurmendi izango da.

Irudia Tolosa



JAUREGIREN OMENEZ

Igarondo Urpekoak taldeak Roberto Jauregiren omenezko Hegats Igeriketa Txapelketa antolatu zuen Usabalen, larunbatean. 10:00etan hasi zen lehia, eta bazkaltzeko tarte hartu eta gero, 16:00etan jarraituko zuen. IX. jardunaldi honetan 160 igerilarik hartu zuten parte, horietatik 17 tolosarrak zirelarik. Igarondo Urpekoak taldeak 30 urte betetzen dituela ere ospatu zuten afari giroan. R. CALVO



Kutxa Saria 2011n, paletan, Mendizabalek Elgezabalekin osatzen du bikotea, eta Arozenak Etchelecurekin. HITZA





GOIZA	EGUZKOA
ARRATSALDEA	EGUZKOA
BEROENA	17°
HOTZENA	13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Txarama



BUKATU DIRA JAIK

Hasi bezala bukatu dituzte Txaramako jaiak: giro onean. Bi eguneko egitaraua prestatu zuen jai batzordeak aurtengorako, eta urteroko moduan herriarrek hartu dute parte ekitaldietan. Ostiral iluntzean bota zuten suziria. Ekitaldi gehienak, halere, larunbatean egin zituzten. Eguerdian toka txapelketa egin zuten, eta ondoren, pintxo lehiaketa egin zuten. Bazkaldu eta gero herriko dantzari gazteak elkartu eta dantza saioa eskaini zieten bertaratutakoek, plazan. Eguna eta jaiak herri afariarekin agurtu zituzten, eta ondoren, trikitilari eta bertsolariak izan ziren. R. CALVO

Agenda

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldearen bilera izango da gaur, 20:00etan Corpus Christi parrokiko lokaletan. Alkoholaren eta bere ondorio kaltegarrien eta osatzaren inguruan hitz egingo dute bileran.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Ione Urain eta Maite Salutregiren *Zipristin* keramika erakusketa Aranburu jauregian ekainaren 11 bitarte.
■ **Armezeta.** Ekainaren 2ra bitarte *Banka etikoa, dirua giza-*

kiaren zerbitzura Kultur Etxean Tolosaldeko Aste Berdearen barruan.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 45.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurak



Zorionak Jose Luis eta Maria!

Gaur zuen ezkontzaren 60. urteurrena. Besarkada bero bat etxekoan partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● agurak

**IBILALDIAREN
ALDEKO
ZOKKETA**

Zerbitzu irabazleak:
25.005

Ordutegiak:
**1. 13.862
2. 5.381**

euskararen alde **BOGA!**
euskal kulturaren alde **BOGA!**
ikastolaren alde, **BOGA!**
BOGA! gure seme-alabengatik,
BOGA! gure herriagatik,
BOGA! gure etorkizunagatik,
... eta azko eguzkipean, eta zaparraratzan,
gurekin batera aial eta indartsu **BOGA!** egin zenuten guztiok...

eskerrik asko! BOGA!

IBILALDIA 2011 ONDARRUA